

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Heraclia Maiztegi Mujika

*Soraluze,
Gipuzkoa
(1919)*

Aurkibidea



Biografia



Aita Txurrukena baserria, (amaren etxea), ezkondu zen eta bertan jaio zen Heraklia. Lau anai arreba izan ziren. Ama Argentinan jaiotakoa zen, Soraluze eta Osintxutik atzerrira joan eta bertan elkartutako bikote batengatik. Lehen hiru umeak Argentinan izan zituzten. Soralezera itzuli, Txurrukena eraiki eta beste sei ume izan zituzten. Lau urterekin Errege Etxeko eskolako eskolaurrean hasi zen. Bernarda Egiguren eta Maria Teresa Bandaormaetxea izan zituen maistrak. Hamaika urte zituela bere nebarik gazteena jaio zen, eta bera zaintzeko laster utzi zion eskolari. Gerra denboran Bilbo, Laredo eta Castrourdialesen egon ziren. Gerraostean lanean hasi zen, (hiru errelebotan), Amutxastegi arma lantegian, armentzako estopin eta ingudeak egiten. Urtebete Amutxastegin eman eta gero, Madina torlojugintza lantegira pasatu zen, non jubilatuta arte jardun zuen lanean. Heraclia ez da inoiz ezkondu.

Zintak

SOR-069

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-10-13
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Txurruken baserrian jaioa

- **Erref:** SOR-069/002
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:04:16. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Solairu biko etxea zen Txurrukena, behekoan ukuilua zuelarik. Esne-behi pare bat zituzten. Aitonak lantegian egiten zuen lan, eta amona arduratzen zen ortuaz. 1918 urteko gripeak familiako bi ahizpa eraman zituen. Heracliaren aita Txurrukenera ezkondu zen; eta, umeak izan zituztenean, kalera joan ziren bizitzera.

2. Ortuak zeuden lekuetan, orain etxeak

- **Erref:** SOR-069/003
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:10:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Hiru anaia izan zituen Heracliak; bi baserrian eta beste bi kalean jaio ziren. Amonak fruta-arbola asko landatu zituen. Erromatik ekarritako mahats ondoak ere omen zituen. Amonaren ortu eta fruta-arbolen lekuan, gaur etxeak eta tailerrak eraiki dituzte.

3. Amona trabuko zaharrarekin

- **Erref:** SOR-069/004
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:10:18. **Bukatu:** 00:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Amona alargun zegoela, ortutik barazkiak gauez lapurtzen zizkiotela konturatu zen. Trabuko zahar batekin uxatu zuen gau batean lapurra. Oso gogorra omen zen amona.

4. Soraluzeko eskolak

- **Erref:** SOR-069/006
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:18:08. **Bukatu:** 00:21:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Erregetxe zaharrean zegoen eskolan ikasi zuen. Gerra denboran, soldaduak egon ziren Erregetxean. Nebarik gazteena jaio eta gutxira, berak hamabi urte zituela, eskola utzi zuen, neba zaintzeko. Erregetxeko eskolatik aparte, maristek eta mertzedaria mojek ere bazituzten berenak; baina horietan ordaindu egin behar zen. Ama jostuna zen.

5. Gerraostean lantegira lanera

- **Erref:** SOR-069/007
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:21:11. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneneko lantegiak

Laburpena:

Aitak kanoi-lantegian egin zuen lan. Seme bik ere berarekin egin zuten lan. Heracliak gerraostean tailer pare batean egin zuen lan, hiru errelebotan egin ere. Amutxasteginean lehenengo eta Madinarenean gero.

6. Amutxastegi eta Madina

- **Erref:** SOR-069/008
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:27:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Amutxastegik armentzako piezak, estopinak eta ingudeak egiten zituen, besteak beste; Madinak, berriz, torlojuak eta azkoinak. Amutxastegin urtebetete inguru egin zuen lan; eta gero, Madinarenean, jubilatuta arte. Somara lan egiten zuen. Lanaren ordainketa egunetik egunera aldatzen zieten eta protesta ugari egin behar izaten zuten, sarritan arrazoirik gabe aldatzen zitelako lanaren balioa.

7. Gerra denboran ihesi

- **Erref:** SOR-069/010
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:27:46. **Bukatu:** 00:30:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra denboran, Bilbora egin zuten ihes. Gerora, Laredon ikusi zituzten sartzen italiar tropak. Handik Castro Urdialesera joan ziren, eta geroago Bilbora itzuli ziren. Gerra denborako kontuak oroitzetarik ez zaio gustatzen Heracliari.

8. Etxera berandu etortzeagatik, zigorra

- **Erref:** SOR-069/011
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:30:14. **Bukatu:** 00:33:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako gaiztakeria eta jolasak kontatzen ditu. Herriko plazan komediak egiten zituzten jolasean. Eibarko erromeriara oinez joaten ziren dantza egitera, etxera itzultzeko ordua ondo zainduz. Soraluzen dantzak uda partean bakarrik egoten ziren.

9. Trenean ordaindu gabe ibiltzen ziren

- **Erref:** SOR-069/012
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:33:32. **Bukatu:** 00:35:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Dirurik ez zutenenez, txartel-zulatzailereangandik ezkutatuta ibiltzen ziren trenez. Maltzagako geltokira joaten ziren igandeetan, Bilbo, Donostia eta Zumarragako trenen aldaketak ikustera. Oñatira joateko ohiturarik ez zuten, baina Eibarrera asko joaten ziren.

10. Umetako gaiztakeriak

- **Erref:** SOR-069/013
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:35:43. **Bukatu:** 00:38:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Ahal zutenetan, barkilloak ere ordaindu gabe jaten zituzten. Oso gaiztoak omen ziren kuadrillan. Fabrika Zaharra esaten zioten atezain zaharrari; hari eta beste andre bati egindako gaiztakeriak.</p>

11. Jolasa eta mendira joatea zituen oso gustuko

- **Erref:** SOR-069/014
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:38:12. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Aste Santuan txirikilletan jolasten ziren. Tortoliska eta zelemiñetan ere jolasten ziren. Txikitatik aitarekin mendira joaten ziren; inguruko mendi guztiak ezagutu zituzten.

12. Azkarabeitiako amabitxia izan zen

- **Erref:** SOR-069/015
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:40:47. **Bukatu:** 00:44:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

1952 urtean Azkarabeitiako iturria eraberritu zuten. Gorpuzti-egunean ospatu zuten eraberritze hori, eta jaiaren amabitxia Heraclia izan zen. Linazasoro zumarragar mendizale ospetsua egon zen mendi-ipuinak kontatzen. Ojanguren, Eibarko argazkilaria, ere etorri zen. Iturri berriaren lehenengo ur-basoa amabitxiak edan zuen, nahiz eta abadeak ia-ia pribilegioa kendu. Bera umetan aitarekin mendira joaten zenean, mendi tontorretako postontzietan egoten zen txartela jaso, eta norberarena nola sartzen zen azaltzen du.

13. Eskolan ibiltzeko espartinak

- **Erref:** SOR-069/016
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:44:27. **Bukatu:** 00:47:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Eskolak erdaraz jaso zituen. Ikasleen artean euskaraz mintzatzeagatik ez zituzten zigortzen. Eskolan ibiltzeko espartinak, ikasgelako mahaietan poltsa batean zintzilikatuta edukitzen zituzten. Larunbatero eguerdietan maistrarekin batera, eskolatik irteten ziren erreka ondoan espartinen hautsak astintzera.</p>

14. Mutilek fruta ekarri eta neskak dantza egiten zuten

- **Erref:** SOR-069/017
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:47:14. **Bukatu:** 00:49:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Bernarda Egiguren zen maistra nafar baten izena. Maria Teresa

Bandaormaetxea, Soralueko maistra bat ere egon zen eskola hartan. Etxeetako atarietako ateak irekita egoten ziren orduan, eta argirik ikusten ez zirenetan sartzen ziren Heraclia eta kuadrilla gaiztakerietan. Fruta sasoiak, mutilek sagarrak eta madariak lapurtzen zituzten. Erregetxean neskek dantza egiten zuten, eta gero denek elkarrekin jaten zuten mutilek ekarritako fruta.</p>
<p>

15. Jaietan zezenen aurrean ibiltzen zen

- **Erref:** SOR-069/018
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:49:58. **Bukatu:** 00:52:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak

Laburpena:

Gaur egun anbulatorioa dagoen lekuan herriko hiltegia zegoen orduan. Jaietarako ekartzen zuten zezena ere bertan gordetzen zuten. Heracliari gustatzen zaion zezenetan ibiltzea. Bi edo hiru neska besterik ez ziren zezenen aurrean ibiltzen ausartzen.

16. Filmak kontatzen zizkien laguna

- **Erref:** SOR-069/019
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:52:13. **Bukatu:** 00:54:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Kuadrillako bati zinemara joatea asko gustatzen zitzaion, baina dirurik ez zuen izaten. Kuadrillako lagunak artean ordaintzen zioten sarrera, eta hurrengo egunean hiltegi ondoko harategi zaharrean elkartzen ziren denak, filma kontatu ziezaien. Bi edo hiru txakur handi kostatzen zuten orduan zinemarako sarrera batek. Lagun zinemazale hark oso ondo kontatzen omen zituen filmak.</p>

17. Aguazila beti euren atzetik

- **Erref:** SOR-069/020
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:54:54. **Bukatu:** 00:57:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Behin batean, aguazilak zabua kendu zien, plazako zuhaitz batean lotuta zutena. Zabu hori berreskuratzeko hartu zituzten lanak kontatzen ditu. Mutilei dantzarik ez emateko egiten zituztenak.

18. Aita 'pilotari jantzian'

- **Erref:** SOR-069/021
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 00:59:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bergarako jaietatik berandu etxeratu, eta lagun bati gertatu zitzaiona kontatzen du. Aitak 'pilotari jantzian' irten omen zion atera.

19. Lantegia Bergarara joan zenekoa

- **Erref:** SOR-069/022
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:59:24. **Bukatu:** 01:02:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Madina lantegiak Bergaran lantegi berria ireki zuenean, enpresak jarritako kamioi batean, barruan aulkiak jarrita, joaten ziren Soraluzetik lanera. Geroago hasi ziren La Bergaresa garraio enpresaren autobusetan joaten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com